

Gemma Lienas
Horrelakoa da bizitza, Carlota
Itzultzailea: Antton Olano
Erein, Perzebal bilduma
Donostia, 2003

Nerabeen zerbitzurako psikoliteratura

Gazte literatura berriaren sorreraren garaiko titulu garrantzitsu bat euskal apalategian jartzeko aukera ematen digu Perzebal bildumako bosgarren zenbakiak; izan ere, katalanezko jatorrizko edizioa 1989koa da, eta geroztik ibilbide luze eta oparoa ezagutu du *Horrelakoa da bizitza, Carlota* gazte eleberriak.

Gemma Lienas idazleak Carlota neska gaztearen ahotsa aukeratu zuen istorioa kontatzeko. Carlolari, hamabost urte betetzear zelarik, izugarri korapilatu zitzaion bizitza: gurasoak banandu zitzaizkion, bere adiskide Ramonek moto-istripu larri bat izan zuen, Jordirekin maitemindu zen... Gauza gehiegi, mundua handi samarra geratzen zaion neska nerabe batentzat. Baina, gertakizunak larriak izan arren, Carlotak tonu ironiko umoretsuan kontatzen ditu, orekatu alde. Eta denbora aurrera joan ahala, gainera, arazoak dramatikotasuna galduz doaz, Carlotaren beraren heldutasun pertsonala finkatzen den neurri berean. Gurasoen arteko harremanaren hondamendiarekin kontrastean, Carlota zirrarez betetako helduen bizitzara jaiotzen da.

Horrelakoa da bizitza, Carlota nobela psikoliteraturan bete-betean sartzen den titulu paradigmaticoa da, derrigorrezko hezkuntza hamasei urtera arte zabaltzearekin batera jaiotzen den gazte literaturaren baitan. Hala, Ulises berrien antzera, nerabezaro urbanoan gazteek aurkituko zituzten arazo ugariari aurre egiteko liburutegi oso bat eraiki zen. Baina inimiztasen eleberri horiek kanpoko mundua ahaztu eta barrura begira jarri ziren, introspektio psikologikoari arreta jartzeko.

Itzulpena, Antton Olanoren eskutik, oro har zuzena da, baina azkar egin izanaren zantzuak erakusten ditu han-hemenka. Horra arazoa: hau bezalako zenbat liburu euskaratu behar ditu itzultzaile batek soldata duina eskuratzeko? *Horrelakoa da bizitza*, itzultzaile.

Manu Lopez Gaseni